



Usurbilgo Ituna

Donostian,
2010eko martxoaren 12a

Donostian, 2010eko martxoaren 12an

USURBILGO ITUNA

Hondakinen kudeaketa-ereduaren norabidea une itxaropentsuan dago Gipuzkoan, Usurbilgo atez ateko bilketak bide berria zabaldu duelako, besteak beste. Eztabaida soziala eta instituzionala ere oraintxe gorpuztu dira.

Horregatik, itun hau sinatzen dugun eragile sozial eta politikoez honako hau adierazi nahi diegu gipuzkoarrei:

- 1 Gipuzkoarron **osasuna da lehenesten dugun irizpidea** gaiaren aterabidea zedarrizteko, beste edozein irizpideren gainetik. Osasuna lehenesteak, ordea, ez du esan nahi gainerako irizpideak kontutan hartzen ez ditugunik, hala nola, ingurumena, ekonomia, lanpostuak, e.a.
- 2 Bat egiten dugu **zabortegiak gainditzeko konpromisoan**, legeek eta zuzentzauek ondo jasotzen duten bezala.
- 3 Bat egiten dugu errausketa gure asmo eta ekinbideetatik baztertzeko, eta hondakinen kudeaketa beste balore, teknologia eta prozedura batzuen bidez bideratzeko.
- 4 Bat egiten dugu **Gipuzkoa osorako “zero zabor” programa** zabala ezarri eta garatzeko beharrean. Gipuzkoarako zero zabor programak modu egokian eta nahikoan konbinatu beharko ditu bilketa selektibo onena eta konpostajea, bi alderdi hauek osatzen baitute hondakinen arazoa konpontzeko soluziobideen ardatza. Horrek esan nahi du **konpostaje-azpiegitura egokia** antolatuta behar dela.
- 5 Zentzu horretan, ontzat jotzen ditugu organikoa ahalik eta gehien jasotzen duten sistemak, nabarmenduz Usurbilgo herrian ezarri den atez ateko sistema lau arrazoi nagusi hauengatik:
 - a. **Sistematik eraginkorra da**: bilketa selektiboa %85ra iristen da, eta inpropioen kopurua marginala da. Ondorioz, konpostaren kalitatea ere ezinhobe da.
 - b. **Emaitzak berehalakoak dira**: Usurbil %76ra iritsi zen lehenengo 4 asteetan.
 - c. Hondakinen gaikako bilketa-sistema **merkeena** da.
 - d. **Lanpostuak** sortzen ditu. Gipuzkoan 477 lanpostu berri sortuko lituzke, egungo lanpostuez gain.
- 6 Ondorioz, Gipuzkoako Diputazioari eskatzen diogu **6 urteko moratoria ezar diezaiola Zubietako errauste plantari**. 6 urte horietan zero waste programa ezarri beharko luke, herri bakoitzera egokitutako gaikako bilketarako sistematik onena eta konpostajea konbinatuta. 6 urte denbora-tarte nahikoa da hondakinak errausketarik gabe kudeatzeko gai ote garen ebaluatzeko.
- 7 Eskatzen diogu, era berean, baliatu dezala aukera hau Gipuzkoa berrikuntza-aren bidean tematzeko, orain arte bezala aitzindari izan dadin. Ez dago gipuzkoarron kemena eta eskuzabaltasuna ordezkatzeko duen teknologiarik, are gutxiago haien osasuna kaltetzen badu. 6 urteko geldialdia besterik ez dugu eskatzen. Eman diezaiozun aukera bat Gipuzkoari.

Sinatzaileak

Duñike Arrizabalaga

ALTERNATIBA

Jesus Uzkudun

CCOO

Iñaki Errazkin

EZKER ABERTZALEA

Ainhara Plazaola

ELA

Antton Karrera

EZKER BATUA - EB

Eneritz Otamendi

EHNE

Alberto Lejardi

BERDEAK

Kamino Sainz

EILAS

Rebeka Ubera

ARALAR

Kepa Olaiz

ESK

Esteban Muruamendiaraz

HIRU

Arantza De Ocio

EGUZKI

Urtzi Ostolozaga

LAB

Igor Gorriño

GREENPEACE

Maria Luisa Sánchez

ERRAUSKETAREN AURKAKO KOORD.

Pilar Barquín

EKOLOGISTAK MARTXAN

Xabier Mikel Errekondo

USURBIL